



**XX/2014 DEKRETUA, XXXX, HIZKUNTZA-TITULU ETA -ZIURTAGIRIEN ETA HIZKUNTZETARAKO EUROPAKO ERREFERENTZIA ESPARRU BATERATUKO MAILEN ARTEKO BALIOKIDETASUNA EZARTZEKO, EAE-KO ADMINISTRAZIO OROKORREKO ETA HAREN ERAKUNDE AUTONOMOETAKO LANPOSTUEN HAUTATZE- ETA HORNITZE-PROZESUETARAKO**

---

Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratua (HEEEB) Europako Kontseiluak onetsi zuen, helburu nagusi hau betetzeko: batasun handiagoa lortzea estatu kideen artean, hizkuntzen esparruan ekintza bateratua adostuz. Esparru horretan, Europar Batasunean hizkuntza-ikaskuntzako eta -ebaluazioko prozesua egituratzeko erreferentzia-maila bateratuak ezartzen dira, bai eta hizkuntza-titulu edo -ziurtagiri bakoitzari dagokion maila zehatza erabakitzeko irizpideak ere. Aurretik zeuden tituluen eta ziurtagirien azterketa eta egokitzapena egiteko prozesua abiatu zen esparru hori ezartzean, Europar Batasuneko estatu bakoitzean hizkuntza modernoek ikaskuntzaren alorrean eskumena zuen administrazio edo erakunde eskudunen aldetik.

EAEko administrazio orokorrean, kudeatzen ziren hautatze- eta hornitze-prozesuetan hizkuntzen balorazioa egitean sortzen ziren arazoak konpontzeko, Funtzio Publikoko Zuzendaritzak, Euskadiko Hizkuntza Eskola Ofizialarekin (HEO) lankidetzan arituta, hizkuntza-tituluen parekotasunak ezarri zituen, hizkuntza-eskola ofizialetako ikastaroak eta mailak erreferentzia gisa hartuta. Baliokidetasun horiek ezarri ziren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduan, EAEko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez betetzeko prozedura arautzekoan, zerbitzu-eginkizunen bitartez hornitzeko prozesuetarako soilik.

Geroago, baliokidetasun horiek zalantzan jarri ziren abenduaren 29ko 1629/2006 Errege Dekretua argitaratzean. Errege Dekretuan, hain zuzen, erregimen bereziko hizkuntzen irakaskuntzako curriculumaren oinarritzko alderdiak ezarri ziren. Dekretu horrek bermatzen du, hain zuzen, hizkuntza-eskola ofizialetako hizkuntza-ikastaroek eta -mailek Europako Esparru Bateratuaren irizpideak betetzen dituztela, ikaskuntza- eta ebaluazio-prozesuei dagokienez. Egokitze-arau horren ondorioz, hizkuntza-eskolek aldatu egin behar izan zuten ordura arte erabilitako mailen eskema. Halaber, ordura arte baliokidetzat jotzen ziren zenbait tituluren parekotasuna galdu zen.

Zerbitzu-eginkizunetarako prozeduretan ez ezik, hizkuntzen balorazioa EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako beste hautatze- eta hornitze-prozesuetan ere egiten da; beraz, egokiagoztat jo da hizkuntza-titulu eta -ziurtagirien arteko baliokidetasunerako arau bakarra ezartzea, baliokidetasun berak erabil daitezkeen hautaketa- eta hornitze-prozesu guztietan.

EAEko administrazio orokorraren eta haren erakunde autonomoen esparruan, beharrezkoa da zehaztea zer titulu eta ziurtagiri diren HEEEBko mailen baliokideak, kontuan hartuta, batetik, ez dagoela inolako araurik (tokiko, estatuko edo Europako esparruan) herrialde guztietako erakunde publiko edo pribatuek igorritako ziurtagiriei ofizialki baliokidetasuna aitortzeko, eta bestetik, titulu eta ziurtagiri ugari eta mota askotakoak daudela, eta asko eta asko direla, halaber, haiek ematen dituzten erakundeak. Erreferentzia hurbilentzat dugu Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Sailak egindako baliokidetasun-taula, maiatzaren 15eko 73/2012 Dekretuaren bitartez. Dekretu horretan, Euskal Autonomia Erkidegoko unibertsitatez kanpoko irakaskuntzan irakasgaiak edo irakats-arloak atzerriko hizkuntzetan emateko hizkuntza-gaitasuneko eskakizunak ezarri ziren. Halaber, Hezkuntza, Unibertsitate eta Ikerketa Saileko irakasle-lanpostuak hautatzeko eta hornitzeko xedetarako, onartzen da zenbait titulu edo ziurtagiri aurkezteko aukera, HEEEBko B2 maila edo hortik gorakoa egiaztatzeko.

Aipatutako legedia, administrazio honen arautze-aurrekariak eta administrazio honek deitutako hautatze- eta hornitze-prozesuei buruz egindako azterketak oinarri hartuta, zerrenda batean jaso dira HEEEBko mailen baliokidetzat jo diren hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak, eta unibertsitate-ikasketak.

Dekretuaren helburua da hizkuntza-titulu eta -ziurtagiriak parekatzea HEEEBko mailekin, administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen hautatze- eta hornitze-prozesuetan hizkuntza-ezagutzak egiaztatze aldera, irizpide eta baliokidetasun berdinak aplikatzen direla bermatzeko.

Horrenbestez, Herri Administrazio eta Justizia sailburuak proposatu, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoaren oniritzia jaso eta Jaurlaritzaren Kontseiluak xxxxxxxx egindako bileran gaia eztabaidatu eta onartu ondoren, honako hau

#### XEDATZEN DUT:

##### 1. artikulua.- Helburua eta aplikazio-eremua

1.- Dekretu honen helburua da hizkuntza-mailak egiaztatzeko tituluen eta ziurtagirien baliokidetasuna ezartzea, Hizkuntzetarako Europako Erreferentzia Esparru Bateratuaren mailen arabera. Baliokidetasunak I. eranskinean jaso dira.

2.- Dekretu hau Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorreko eta haren erakunde autonomoetako lanpostuetarako hautatze- eta hornitze-prozesuetan aplikatuko da.

3.- Ertzaintzako funtzionarioei, irakasle funtzionarioei, osasun-erakundeetako funtzionarioei eta estatutupekoiei, eta Justizia Administrazioko funtzionarioei ez zaie dekretu hau aplikatuko.

#### **XEDAPEN INDARGABETZAILEAK**

Lehena.- Indargabetu egiten dira Ogasun eta Herri Administrazio sailburuaren 2006ko maiatzaren 30eko Aginduaren 13.3.i) artikuluko a), b), c) eta d) idatz-zatiak. Agindu horren bidez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorraren eta haren erakunde autonomoen lanpostuak zerbitzu-eginkizunen bitartez hornitzeko prozedura arautzen da.

Bigarrena.- Indargabetu egiten da Jaurlaritzaren Idazkaritzako eta Legebiltzarrarekiko Harremanetarako zuzendariaren abuztuaren 21eko 41/2012 Ebazpenaren, Jaurlaritzaren Kontseiluak hartutako akordioa argitara dadila xedatzen duenaren, 12.2.5 artikulua. Akordio horren bitartez arautzen da Euskal Autonomia Erkidegoko administrazioako lan-kontratudunen kolektiboaren aldi baterako mugigarritasuna.

Hirugarrena. Dekretu honetan xedatutakoaren aurka dauden maila bereko nahiz beheragoko mailako xedapen guztiak indargabetzen dira.

### **XEDAPEN IRAGANKORRAK**

EAEko administrazio orokorreko eta haren erakunde autonomoetako langileen hautatze- eta hornitze-prozesuekin lotutako legedian hizkuntza-eskola ofizialen mailai buruz ageri diren erreferentziei dagokienez, ulertu behar da HEEEBko mailak adierazten direla, dekretu honen eranskinean xedatutako baliokidetasunekin bat, legedia maila horietara egokitzen ez den bitartean.

### **AZKEN XEDAPENAK**

Lehena.- Langileen erregistroa eguneratzea

Langileen erregistroan atzerriko hizkuntzen ezagutzari buruz jasotako datuak eguneratu egingo dira, HEEEBko mailetara, Dekretu honen eranskinean xedatutakoarekin bat.

Bigarrena. Eranskina eguneratzea

Funtzio publikoko gaietan eskudun den sailburuak dekretu honen eranskina eguneratu ahal izango du, dela B1 maila edo hortik gorakoa jada bermatzen ez duten tituluak, ziurtagiriak edo unibertsitate-ikasketak kenduz, dela maila hori egiaztatzen duten beste batzuk espresuki gehituz.

Hirugarrena.- Indarrean sartzea.

Dekretu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean jarriko da indarrean.

Vitoria-Gasteizen, XXXXXXXXX(e)an.

XXXXXXX DEKRETUAREN ERANSKINA

HIZKUNTZETARAKO EUROPAKO ERREFERENTZIA ESPARRU BATERATUAREN  
MAILEN BALIOKIDE DIREN TITULU ETA ZIURTAGIRIAK

**HEEEBko B1 maila**

INGELESA:

HEOko Tarteko Maila  
Preliminary English Test (PET)  
PTE General  
Pearson Test Of English (LEVEL 2)  
Trinity College ISE 1  
BEC Business English Certificate - Cambridge (PRELIMINARY Good & Exceptional)  
IELTS 4.0/4.5 (British Council)

FRANTSESA:

HEOko Tarteko Maila  
DELFL 1er degré  
Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B1 (CIEP)  
Certificat d'Etudes de Français Pratique 2 (CEFP2) (AF)  
CFP2 (Certificat du Français Professionnel 2)  
CFS (Certificat de Français du Secrétariat)  
CFTH (Certificat de Français du Tourisme et de l'Hôtellerie)  
CFST (Certificat de Français Scientifique et Technique)  
DFP B1 (Diplôme de Français Professionnel B1)  
DFP Secrétariat B1  
DFP Tourisme et Hôtellerie B1  
DFP Scientifique et Technique B1

ALEMANA:

HEOko Tarteko Maila  
Zertifikat Deutsch (ZD)  
Zertifikat Deutsch als Fremdsprache (ZDdaF)  
TELC Deutsch B1 Beruf

**HEEEBko B2 maila**

INGELESA:

HEO - Maila Aurreratua  
First Certificate in English (FCE)  
PTE General Pearson  
Pearson Test Of English (LEVEL 3)  
Trinity College ISE 2  
BEC Business English Certificate-Cambridge (VANTAGE Good & Exceptional)

IELTS 5.0/5.5/6.0 (British Council)

FRANTSESA:

HEO - Maila Aurreratua

DELFF 2e degré

Diplôme d'Etudes en Langue Française DELF B2 (CIEP)

Diplôme de Langue Française (DL) (AF)

DFA1 (Diplôme de Français de Affaires 1)

CFJ (Certificat de Français Juridique)

DFP Affaires B2 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires B2)

DFP Juridique B2

B2 DFP Médical B2

B2 DFP Secrétariat B2

ALEMANA:

HEO - Maila Aurreratua

Goethe-Zertifikat B2

Zertifikat Deutsch+

Zertifikat Deutsch für den Beruf

Deutsch für den Beruf (ZDfB)

TELC Deutsch B2

Mittelstufe Deutsch (MD)

TestDaf Niveaustufe, 3. maila

**HEEEBko C1 maila**

INGELESA:

HEO - Gaitasun Maila

Certificate in Advanced English (CAE)

PTE General

Pearson Test Of English (LEVEL 4)

Trinity College ISE 3

BEC Business English Certificate-Cambridge (HIGHER Good & Exceptional)

IELTS 6.5/7.0 (British Council)

FRANTSESA:

HEO - Gaitasun Maila

DALF

Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C1 (CIEP)

Diplôme Supérieur d'Etudes Françaises Modernes (DS) (AF)

DSLFCF (Diplôme Supérieur de Langue et Culture Françaises)

DFA2 (Diplôme de Français des Affaires 2)

DFP Affaires C1 (Diplôme de Français Professionnel dans le Monde des Affaires C1)

ALEMANA:

HEO - Gaitasun Maila  
Goethe-Zertifikat C1 (ZMP)  
Prüfung Wirtschaftsdeutsch Internacional  
Zentrale Mittelstufenprüfung (ZMP)  
TELC Deutsch C1  
Oberstufe Deutsch  
TestDaf Niveaustufe, 4. eta 5. maila  
Deutsche Sprachprüfung für den Hochschulzugang (DSH)

**HEEEBko C2 maila**

INGELESA:

Certificate of Proficiency in English (CPE)  
PTE General  
Pearson Test Of English (LEVEL 5)  
Trinity College ISE 4  
IELTS 7.5+ (British Council)

FRANTSESA:

Diplôme Approfondi de Langue Française DALF C2 (CIEP)  
Diplôme de Hautes Etudes Françaises (DHEF) (AF)  
DAFA (Diplôme Approfondi de Français des Affaires)  
DFP Affaires C2

ALEMANA:

Zentrale Oberstufenprüfung (ZOP)  
Kleines Deutsches Sprachdiplom (KDS)  
Großes Deutsches Sprachdiplom (GDS)  
Wirtschaftssprache Deutsch (WD)